

214/2016 Ebazpena, 2016ko uztailaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, 6. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak argitaratzeko agintzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez (232. EHAA, 2008ko abenduaren 3koa), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak onartu ziren, Osakidetzan lotura estatutario finkoa eskuratzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.

Apirilaren 22ko 126/2016 Ebazpenaren bidez, 6 lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin behineko zerrendak argitaratu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokionez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Behin behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,


EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 6. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean argitaratzeko agintzea, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

2016ko uztailaren 21ean indarrean sartuko dira zerrenda hauek.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendariari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 18an.


Osakidetza

Iz. José María Argentea Macazaga
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD